Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OSASUN SAILA

99

1481/2008 EBAZPENA, azaroaren 20koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiaren 2005eko otsailaren 1eko 17/2005 epaia betetzeko dena. Epai horren bidez baietsi egin zen Mercedes Gutierrez García, Pascual García Vallejo, eta Francisco Javier Alonso Celayeta jaun-andreek apirilaren 23ko 2694/2004 Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsoa. Ebazpen horrek ezetsi egin zuen azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa. 686/2003 Ebazpenak fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategorian, pertsonal estatutarioaren egoerara iristeko hautaketa-proben oposizioaldia gainditu zuten izangaien behin betiko zerrenda argitaratzeko agindu zuen. Aipatutako 17/2005 epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 137/2008 Epaiaren bidez berretsi egin zen apelazioan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak Mercedes Gutierrez García, Pascual García Vallejo, eta Francisco Javier Alonso Celayeta jaun-andreek ezarritako errekurtsoa onartu zuen. Errekurtso hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren aurka ezarri zen, hain zuzen ere odontologoen kategorian pertsonal estatutarioaren egoerara iristeko hautaketa-proben oposizioaldia gainditu zuten izangaien behin betiko zerrenda argitaratzeko agindu zuena. Horretaz gain, arazo guztiaren jatorri den espedientean jasotako administrazio-egintza guztiak kontuan hartu dira.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak ondoko administrazio-prozedurako zenbait jarduketari buruzko ebatzia eman du: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko erakunde sanitarioetan, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko odontologoen kategorian, lanpostu hutsak betetzeko prozesuari buruzkoa. Prozedura horretan honako egintza hauek aipatuko ditugu:

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

99

RESOLUCIÓN 1481/2008, de 20 de noviembre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se da cumplimiento a la sentencia n.º 17/2005, de 1 de febrero de 2005, del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz, que estima el recurso interpuesto por Dña. Mercedes Gutierrez García, D. Pascual García Vallejo, y D. Francisco Javier Alonso Celayeta, frente a la Resolución 2694/2004 de 23 de abril, desestimatoria del recurso de alzada interpuesto contra la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, por la que se ordena la publicación de la relación definitiva de aspirantes que superaron la fase de oposición de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos y que fue ratificada en apelación por sentencia n.º 137/2008 del Tribunal superior de Justicia del País Vasco.

Vista la sentencia cuyo fallo se lleva a efecto mediante la presente, dada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz, estimatoria de las pretensiones de los recurrentes Dña. Mercedes Gutierrez García, D. Pascual García Vallejo, y D. Francisco Javier Alonso Celayeta, quien impugnaban la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud por la que se ordena la publicación de la relación definitiva de aspirantes que superaron la fase de oposición de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo y vistas igualmente las actuaciones administrativas obrantes en el expediente del que trae aquélla su causa, le son de aplicación los siguientes,

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El proceso administrativo sobre algunas de cuyas actuaciones se pronuncia el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz es el tramitado al objeto de la provisión de plazas vacantes de la categoría de Odontólogo del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el cual han tenido lugar los siguientes actos:

1.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 265/2002 Ebazpenaren bidez, pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeak) betetzeko hautaketa-probetarako deia egin zen (maiatzaren 21eko EHAA, 94. zenbakia). Guztira, 6 lanpostu bete behar ziren deialdi horretan.

2.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren uztailaren 1eko 456/2003 Ebazpenaren bidez (uztailaren 24ko EHAA), pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan) betetzeko hautaketa-probetako oposizioaldia gainditu dutenen behin-behineko zerrenda, lortutako puntuen arabera antolatutakoa, onartu zen (EHAA, 145. zenbakia).

3.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren bidez (abenduaren 16ko EHAA), pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan) betetzeko hautaketa-probetako oposizioaldia gainditu dutenen behin betiko zerrenda, lortutako puntuen arabera antolatutakoa, onartu zen (EHAA, 245. zenbakia).

Destinoa hartzeko eskubidea duten langileen zerrenda I. eranskinean argitaratu zen, eta bertan Federico Simón Salazar jauna 3. postuan ageri zen, guztira 120,45 punturekin. Halaber, I. eranskinean, Mercedes Gutierrez García andrea, 118,50 punturekin, eta Francisco Javier Alonso Celayeta jauna, 115,550 punturekin ageri ziren.

Oposizioaldia gainditu zuten izangaien zerrenda II. eranskinean argitaratu zen; bertan, Pascual García Vallejo jauna 114,6250 punturekin azaltzen zen, destinoa hartzeko eskubiderik gabeko lehenengo izangai gisa.

4.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 151/2004 Ebazpenaren bitartez (martxoaren 29ko EHAA), hutsik dauden destinoak esleitu ziren, eta pertsonal estatutarioa izendatu zen, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak betetzeko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan (EHAA, 60. zenbakia).

Mercedes Gutierrez García andreari San Martin-Ariznabarra osasun-zentroan esleitu zitzaion lanpostua.

Fco. Javier Alonso Celayeta jaunari AP Lakuabizkarran esleitu zitzaion lanpostua.

Federico Simón Salazar jaunari Basauriko anbulatorioan esleitu zitzaion lanpostua.

1.– Mediante la Resolución 265/2002, de 26 de abril del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 94, de 21 de mayo), convocándose 6 plazas.

2.– Mediante Resolución 456/2003, de 1 de julio, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV, de 24 de julio, se aprobó la relación provisional de aspirantes que han superado la fase de oposición por orden de puntuación, de las pruebas selectivas para el acceso la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios (BOPV n.º 145).

3.– Mediante Resolución 686/2003, de 10 de noviembre de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV, de 16 de diciembre, se aprobó la relación definitiva de aspirantes que han superado la fase de oposición por orden de puntuación, de las pruebas selectivas para el acceso la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 245).

En el anexo I se relaciona al personal con derecho a destino, figurando D. Federico Simón Salazar con una puntuación total de 120,45 en el puesto n.º 3. Asimismo figuran en el anexo I, Dña. Mercedes Gutierrez García con una puntuación de 118,50 y D. Francisco Javier Alonso Celayeta, con una puntuación de 115,550.

En el anexo II se relaciona los aspirantes que ha superado la fase de oposición, figurando D. Pascual García Vallejo, con una puntuación de 114,6250, el primero de los aspirantes sin derecho a destino.

4.– Mediante Resolución 151/2004, de 27 de febrero del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV, de 29 de marzo, se procede a la adjudicación de destinos vacantes y al nombramiento como personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 60).

Se le adjudica a Dña. Mercedes Gutierrez García una plaza en el centro de salud de San Martin-Ariznabarra.

Se le adjudica a D. Fco. Javier Alonso Celayeta una plaza en AP Lakuabizkarra.

Se le adjudica a D. Federico Simón Salazar una plaza en el ambulatorio de Basauri.

Pascual García Vallejo jaunari, berriz, ez zitzaion lanposturik esleitu, aipatutako ebazpenean ezarritakoa betez.

5.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 3377/2004 Ebazpenaren bitartez (abenduaren 17ko EHAA), ondoriozko fasean hutsik geratu ziren destinoak esleitu ziren eta pertsonal estatutarioa izendatu zen, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak betetzeko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan (EHAA, 240. zenbakia).

Horrela, Pascual García Vallejo jaunari lanpostua esleitu zitzaion Irun-Errenteriako anbulatorioan.

Bigarrena.– Mercedes Gutierrez García, Pascual García Vallejo eta Francisco Javier Alonso Celayeta jaun-andreek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuten aurreko atalean aipatutako azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren aurka. Errekurtso hori ezetsi egin zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2004ko apirilaren 23ko Ebazpenaren bidez.

Inpugnatzeko arrazoi gisa, auzi-jartzaileek adierazi zuten Federico Simón Salazar demandatuaren lanbide-esperientzia baloratzean ez zela bete deialdiaren oinarrietan ezarritakoa, balorazio hori ez baitzetorren bat oinarri horietan zehaztutakoarekin.

Ezespenaren ondoren, administrazio-bidea agortuta, administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo zuten, aipatutako ebazpenen aurka egiteko. Horiek horrela, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak 247/04 errekurtsoko autoei hasiera eman zien, eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak zehaztutako prozedura laburtuaren arabera bideratu zituen. Auzi-jartzaileek eskatu zuten administrazioarekiko auzietako errekurtso hori baiesten zuen epaia emateko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpena baliogabetzeko eta Federico Simón Salazar jaunari dagokion amaierako puntuazioa 105,40 puntukoa izateko edo, subsidiarioki, 110,14 puntukoa. Horren ondorioz, I. eranskineko zerrenda, destinoa hartzeko eskubidea duten izangaiena, berriro antolatu beharko zen, bai eta II. eranskinean argitaratutako oposizioaldia gainditu zuten izangaien zerrenda ere.

Alderdi kodemandatua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua izan zen.

Otsailaren 1eko 17/2005 epaiaren arabera emandako epaitza judizialak baietsi egin zuen aurkeztutako demanda; izan ere, epaitzak zioenez, Federico Simón Salazar jaunak egindako zerbitzuen balorazioa ez zetorren bat deialdiaren oinarrietako III. eranskinean ezarritakoarekin.

Inpugnatutako ebazpena ordenamendu juridikoaren aurkakoa dela deklaratzen da eta, beraz, baliogabetuta eta ondoriorik gabe geratzen da. Administrazio

D. Pascual García Vallejo no resulta adjudicatario en virtud de lo establecido en la citada Resolución.

5.– Mediante Resolución 3377/2004, de 2 de noviembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV, de 17 de diciembre, se procede a la adjudicación en fase de resultas de los destinos vacantes y al nombramiento como personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 240).

Se le adjudica a D. Pascual García Vallejo una plaza en el ambulatorio de Irun-Renteria.

Segundo.– Frente a la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, citada en la relación precedente, Dña. Mercedes Gutierrez García, D. Pascual García Vallejo, y D. Francisco Javier Alonso Celayeta deducen el pertinente recurso de alzada, que es desestimado en virtud de Resolución de 23 de abril de 2004, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

La parte actora alega como motivos de impugnación la vulneración de las bases de la convocatoria en la valoración de la experiencia profesional del demandado D. Federico Simón Salazar, por no ajustarse a lo establecido en las mismas.

Ante la desestimación y agotada la instancia administrativa, acuden al orden jurisdiccional en revisión de las mencionadas resoluciones, incoándose por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz los autos de recurso número 247/04, seguido por los trámites del procedimiento abreviado de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Reclaman los actores que se dicte sentencia por la que estimando el presente recurso Contencioso-Administrativo, se anule la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, declarando que la puntuación final correspondiente a D. Federico Simón Salazar, sea de 105,40 puntos, o subsidiariamente 110,14 puntos, con las consecuencias que ello comporte en orden a la reestructuración de la relación de personal con derecho a destino del anexo I y de la relación de aspirantes que han superado la fase de posición, del anexo II.

Actúa como parte codemandada Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El fallo judicial, pronunciado en virtud de sentencia n.º 17/2005, de 1 de febrero, estima la demanda, tras sostener que la valoración de los servicios prestados objeto del recurso, de D. Federico Simón Salazar, no se ajusta a lo establecido en el anexo III de las bases de la convocatoria.

Se declara que la Resolución impugnada es contraria al Ordenamiento Jurídico, anulándola y dejándola sin efecto. La Administración codemandada deberá realizar

kodemandatuak, hortaz, Federico Simón Salazar jaunaren merezimenduak berriro baloratu beharko ditu, odontologo-zerbitzuetan emandako alditik honako hauek kenduz: 1990-01-01etik 1990-06-30era eta 1991-06-01etik 1997-05-31ra bitartean egindakoak, aldi horietan Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioan aritu baitzen lanean. Ondorioz, oposizioaldia gainditu duten izangaien zerrenda berriz egin behar da, eta inpugnatutako ebazpena baliogabetu denez, horren ondorio diren hautaketa-prozedurako egintzak ere baliogabetuta geratzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 247/04 apelazio-errekurtsoko autoen ardura izan du eta martxoaren 17ko 137/08 epaiaren bidez bukaera eman die auto horiei. Epai horren bidez, aipatutako apelazio-errekurtsoa ezetsi, eta auzialdiko epaileak emandako epaiaren arrazoiak eta epaitza berretsi egiten ditu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetzaren aurkako demandetan emandako epaiak betetzea erakunde publiko horretako Giza Baliabideetako zuzendariari dagokio, langileriaren esparruko zeregina eskuordetzan eman baitzitzaion Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 14ko emandako 514/1999 Ebazpenaren bitartez (1999ko abuztuaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 158. zenbakia).

Bigarrena.– Prozedura hau izapidetzean interesatuei entzun zaie, halaxe ezartzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikuluak.

Hirugarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak emandako epaiak baietsi egiten du Mercedes Gutierrez García, Pascual García Vallejo eta Francisco Javier Alonso Celayeta jaun-andreek aurkeztutako errekurtsoa, honako arrazoi honetan oinarrituta: «esperientziaren ataleko merezimenduen baremoa eranskinean zehazten diren ataletan egin behar da, beste oinarri batzuk analogiaz aintzat hartu barik, horrek kalte egingo bailieke beste izangai batzuei; izan ere, izangai baten merezimendu profesionalak ezin badira sartu deialdiko ataletako bakar batean ere, ez dira aintzakotzat hartuko. Auzi honetan, kodemandatuari analogiaz beste oinarri batzuk aplikatzeak berdintasun-printzi-

una nueva valoración de los meritos de D. Federico Simón Salazar descontando del periodo de servicios como Odontólogo los comprendidos entre el 01-01-1990 y el 30-06-1990 y entre el 01-06-1991 al 31-05-1997, en que desempeñó sus funciones en el puesto de gestión al frente del servicio Dental Comunitario, realizando una nueva relación de aspirantes que han superado la fase de oposición, anulándose los actos posteriores del procedimiento selectivo que traigan causa de la nulidad de la Resolución impugnada.

La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco conoce del recurso de apelación en los autos núm. 247/04, que concluyen mediante la sentencia n.º 137/08, de 17 de marzo, desestimatoria de la revisión y confirmatoria de los argumentos y fallo de la sentencia del juzgador de instancia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Director de Recursos Humanos del Ente Público resolver en materia de ejecución de sentencias cuando la demandada sea Osakidetza, en ejercicio de la delegación de funciones en materia de personal dada en virtud de la Resolución 514/1999, de 14 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV n.º 158, de 19 de agosto de 1999.

Segundo.– En la tramitación de este procedimiento, se ha dado audiencia a los interesados, observando lo dispuesto por el artículo 84 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercero.– En los Juzgados y Tribunales del orden de lo contencioso-administrativo reside la potestad de hacer ejecutar lo juzgado y en las partes del proceso la obligación de acatar sus sentencias y resoluciones, dando cumplimiento a las mismas en la forma y términos que en éstas se consignen, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 103.1 y 103.2 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

La sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz estima el recurso interpuesto por Dña. Mercedes Gutierrez García, D. Pascual García Vallejo, y D. Francisco Javier Alonso Celayeta y lo hace fundándose en que «el baremo de los meritos en el apartado de experiencia debe realizarse en los apartados que recoge el anexo, sin acudir a otras bases por analogía, en perjuicio de otros aspirantes y ello pese a que puedan existir meritos profesionales de un candidato que sino tienen encaje en alguno de los apartados recogidos en la convocatoria, no pueden ser considerados. En este caso la aplicación al codemandado por analogía de otras bases, vulnera el principio de

pioa urratu egiten du, izangaien arteko tratu desberdina baitakar».

Epailearen adierazpenak errekurritutako egintza aldatzea dakar eta, hala badagokio, baita horren ondorio diren guztiak ere. Hala ere, «ez dago zertan aldatu arauhaustea egin ez balitz bere horretan jarraituko zuketen egintza eta izapideak», horixe xedatzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 66. artikuluan.

Hortaz, epaitegiaren epaitzaren ondorioz, eta ebazpen honen aurrekarietan aipatu diren zerbitzuak Federico Simón Salazar jaunak odontologo-zerbitzuetan emandako alditik kenduz merezimenduen balorazio berria egin ondoren, honako ebazpen hauek zati batean aldatu egiten dira: azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpena, oposizioaldia gainditu zuten izangaien behin betiko zerrenda -auzi honetan inpugnatutakoa- argitaratzeko agintzen duena, eta, bereziki, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 151/2004 Ebazpena, odontologoen kategorian destinoak esleitu eta pertsonal estatutarioa izendatzeko dena.

Prozedura izapidetzean egin diren gainontzeko administrazio-egintzak, hain zuzen ere, orain aldatutakoekin zerikusirik ez dutenak, bere horretan utziko dira, gauzatu ziren moduan.

Esandako guztiagatik, hauxe,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak otsailaren 1ean emandako 17/05 epaia bete dadila xedatzea. Epai horren bitartez baietsi egin zen Mercedes Gutierrez García, Pascual García Vallejo eta Francisco Javier Alonso Celayeta jaun-andreek aurkeztutako 247/04 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren aurka. 17/05 epaia apelazio-errekurtsoan berretsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak martxoaren 17an emandako 137/08 epaiaren bidez. Aipatutako azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpenaren bidez -Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena- honako hau onartu zen, pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, fakultatibo teknikoen lanbide-taldean, odontologoen kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan) betetzeko hautaketa-probetako oposizioaldia gainditu zutenen behin betiko zerrenda, lortutako puntuen arabera antolatutakoa (abenduaren 16ko EHAA, 245. zenbakia).

Bigarrena.– Epaitza izapide hauen bitartez gauzatzea:

1.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 10eko 686/2003 Ebazpena aldatzea. I. eranskinean txanda irekian opo-

igualdad por la diferencia de trato que supone entre los aspirantes».

La declaración judicial conlleva la modificación del acto recurrido y, en su caso, de cuantos otros traigan su causa de aquél, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 66 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, que permite disponer «la conservación de aquellos actos y trámites cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse cometido la infracción».

Así, no sólo la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, por la que se ordena la publicación de la relación definitiva de aspirantes que superaron la fase de oposición, propiamente impugnada, sino muy especialmente la Resolución 151/2004, de 27 de febrero del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la adjudicación de destinos y al nombramiento como personal estatutario en la categoría de Odontólogo, han de verse parcialmente afectadas por el fallo del Tribunal y modificadas tras la nueva valoración de los méritos de D. Federico Simón Salazar descontando del periodo de servicios como Odontólogo los enumerados en los antecedentes de la presente Resolución.

A la mentada institución de conservación de los actos administrativos han de acogerse cuantas otras actuaciones administrativas han concurrido en la tramitación del procedimiento de acceso ajenas a las que aquí se modifican y en los precisos términos en que se llevan a cabo.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Disponer el cumplimiento de la sentencia n.º 17/05, de 1 de febrero, del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz, por la que se estima el recurso contencioso-administrativo n.º 247/04 interpuesto por Dña. Mercedes Gutierrez García, D. Pascual García Vallejo, y D. Francisco Javier Alonso Celayeta y confirmada por la sentencia n.º 137/08, de 17 de marzo, dictada en recurso de apelación por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, deducido aquél frente a la relación definitiva de aspirantes por orden de puntuación que habían superado la fase de oposición en la convocatoria de pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo del grupo profesional de Facultativos Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios del ente público, aprobada en virtud de la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud (BOPV n.º 245, de 16 de diciembre).

Segundo.– Sustanciar la ejecución del fallo judicial en base a las siguientes actuaciones:

1.– Modificar la Resolución 686/2003, de 10 de noviembre de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud. Mediante anexo I, se

sizioaldia gainditu eta destinoa lortu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen da, puntuazioaren arabera antolatuta. Alde horretatik, argitu egin beharra dago 6 lanpostu eskaini zirela, eta horietatik bat barne-sustapen bidez esleitu zela, eta gainerako bostak txanda irekiaren bidez. Lanpostu horiek esleitu ondoren, eta deialdiaren oinarrietako 1. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz, lanpostu bat hutsik geratu zen, lanpostu horren titularra barne-sustapenez beste lanbide-kategoria batean langile estatutario finkoaren lanpostu batez jabetzearen ondorioz. Destino hori da Pascual García Vallejo jaunari -prozedura honetako auzi-jartzaileetako bati- geroago esleitu zitzaiona.

2.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 151/2004 Ebazpena aldatzea (martxoaren 29ko EHAA); ebazpen horren bidez, hutsik zeuden destinoak esleitu ziren eta pertsonal estatutarioa izendatu zen, odontologoen kategoriako destinoak betetzeko. Ebazpen honen II. eranskinean, aldaketek eragindako izangaiei esleitutako destinoak baino ez dira argitaratu.

Halaber, azaroaren 22ko 3377/2004 Ebazpena (abenduaren 17ko EHAA, 240. zenbakia) ondoriorik gabe geratzen da, deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorriz; ebazpen horren bidez, Pascual García Vallejo jaunari hutsik geratu zen destino bat esleitu zitzaion.

3.– Honako hau jakitera ematea: I. eranskinean (destinoa lortu duten izangaiak) ageri diren izangaietako bik berariaz adierazi dute ez dutela parte hartzen jarraituko odontologoen kategorian pertsonal estatutarioaren mailara iristeko 2002. urteko hautaketa-prozesuan; izan ere, kategoria horretan esleitu zaien destinoaz jabetu baitira, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak 2006. urtean deitutako hautaketa-prozesuan.

4.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik at geratzen diren gainerako egintza eta izapideek bere hartan jarrai dezatela agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren izangaiek hilabeteko epea izango dute esleitu zaien lanpostuaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza zentralean (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), eta esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ekitaldi horretan:

– Zinpeko aitorpena edo hitzematea, hau jakinarazteko: ez dituztela diziplinako espediente baten bidez inongo Administrazio Publikotako zerbitzutik bereizi, eta ez daudela gaitasungabetuta zeregin publikoetan jarduteko.

da a conocer la relación definitiva de los aspirantes del turno libre por orden de puntuación que, han superado la fase de oposición, y que tienen derecho a destino. A este respecto es conveniente aclarar que se convocaron 6 plazas, de las cuales se adjudicó 1 por promoción interna y 5 por el turno libre. Una vez adjudicadas estas plazas y de acuerdo con lo establecido en el punto 1 de las bases de la convocatoria resulta un destino vacante como consecuencia de la toma de posesión por parte de quien ostentaba la titularidad del mismo, de un destino como personal estatutario fijo en otra categoría profesional a través del turno de promoción interna. Dicho destino es el que se adjudica en fecha posterior a D. Pascual García Vallejo, uno de los actores en este proceso.

2.– Modificar la Resolución 151/2004, de 27 de febrero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el BOPV, de 29 de marzo, por la que se procede a la adjudicación de destinos vacantes y al nombramiento como personal estatutario en la categoría de Odontólogo. En el anexo II de la presente Resolución se publican únicamente las adjudicaciones que afectan a los aspirantes sobre los que recaen los cambios.

Queda asimismo sin efecto la Resolución 3377/2004, de 22 de noviembre, publicada en el BOPV n.º 240 el 17 de diciembre, por la que se adjudica un destino vacante a D. Pascual García Vallejo, de acuerdo con lo establecido en las bases de la convocatoria.

3.– Manifestar la expresa voluntad por parte de dos de los aspirantes que figuran en el anexo I, personal con derecho a destino, de no seguir participando en el proceso selectivo para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Odontólogo convocado en el año 2002, por habérseles adjudicado y haber tomado posesión de un destino en la misma categoría en el proceso selectivo convocado por Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el año 2006.

4.– Disponer la conservación de cuantos otros actos y trámites no resultan afectados por lo dispuesto en la presente resolución.

Tercero.– Los aspirantes a que se refiere el anexo II de la presente Resolución dispondrán para la toma de posesión del destino que les ha correspondido del plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Resolución en el BOPV.

La toma de posesión deberá efectuarse en la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con domicilio en la sede central del mismo (c/ Álava, 45. 01006 Vitoria-Gasteiz), debiendo aportar en el acto la siguiente documentación:

– Declaración jurada o promesa de no haber sido separado del servicio de ninguna administración pública mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

– Azterketa medikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emandakoa, destinoko lanpostua behar bezala betetzeko gaikuntza psikofisikoa dutela egiaztatzeko. Behar den momentuan deitu egingo zaie azterketa egiteko.

Esleipendunek, ezarri zaien epean, eskatutako agiriak aurkezten ez badituzte edo, agiriak aztertuta, 3.2 oinarri-arauan eskatutako betekizunen bat bete gabe dutela ikusten bada, ez dute estatutupeko langile gisa esleitu zaien lanpostuaz jabetzerik izango, eta baliorik gabe geratuko dira ordura arteko jarduketak; horrez gain, erantzukizuna ere eskatu ahal izango zaie hasierako eskaera faltsutzeagatik.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira aurkeztu ezean dagokion epearen barruan, hautaketa-probei buruzko ebazpenean aitortu zitzaizkien eskubideak galduko dituztela.

Ezarritakoaren arabera lanpostuaren jabe egindakoan, izangaiek dagokien erakunde sanitarioan hasi beharko dute lanean, bete beharreko eginbidea bete eta hurrengo egunean.

Laugarrena.– Kategoria honetan, II. eranskinean aipatzen diren destinoetako bat betetzen duten izangaiei beste destino bat esleitu bazaie, orain betetzen duten lanpostua utzi beharko dute, honako ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epean, eta lanpostu berriaren jabetza hartu beharko dute, aurreko lanpostua utzi ondorengo hiru egun baliodunetan.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian jabetuko dira lanpostuez. Egintza horretan izendapenaren jatorrizko agiria aurkeztu beharko dute, eta esleitu zitzaien destinoaz jabetzeko eginbidea; horiez gainera, aurreko lanpostuari utzi diotela egiaztatzeko agiriak ere bai.

Bosgarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadila agintzea, eta interesatuei eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiari jakinaraztea.

Seigarrena.– Epaia betetzeko izapideetan sor daitezen gorabeherak aztertzea eta ebaztea epaitegi horri dagokio, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 20a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko
Giza Baliabideetako zuzendaria,
JOSÉ ANDRÉS BLASCO ALTUNA.

– Reconocimiento médico que acredite la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino emitido por el Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para lo cual serán citados en el momento correspondiente.

Quienes, dentro del plazo fijado, no comparecieran provistos de la documentación mencionada o, del examen de la misma, se dedujera que carece de alguno de los requisitos señalados en la base 3.2, no podrá tomar posesión del destino de personal estatutario que se le adjudica y quedarán anuladas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubiere incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

Del mismo modo, se apercibe a los interesados que la incomparecencia a la toma de posesión dentro del plazo significará la pérdida de los derechos derivados de la resolución de las pruebas selectivas.

Efectuada la toma de posesión con arreglo a lo expuesto, los aspirantes habrán de incorporarse a la organización de servicios sanitarios que se le ha asignado al día siguiente al de la cumplimentación de la correspondiente diligencia.

Cuarto.– Los aspirantes que ocupen uno de los destinos de esta categoría mencionados en el anexo II, y se les adjudique otro destino diferente, habrán de cesar en la plaza que desempeñan dentro de los tres días hábiles siguientes a aquél en que se publique la presente en el BOPV y tomar posesión de la nueva plaza dentro de los tres días hábiles siguientes al del cese.

La toma de posesión deberá efectuarse en la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, aportando el documento original del nombramiento y diligencia de toma de posesión del destino que le fue adjudicado y la acreditación documental del cese.

Quinto.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el BOPV, su notificación a los interesados y su comunicación al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Sexto.– Compete al citado Juzgado conocer de cuanta cuestión pueda plantearse en trámites de ejecución de la sentencia, conforme a lo que disponen los artículos 103.1 y 109 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2008.

El Director de Recursos Humanos
de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JOSÉ ANDRÉS BLASCO ALTUNA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA
FAC. TÉCNICO ODONTÓLOGO

IREKIA/*LIBRE*

NAN *DNI*	IZEN-ABIZENAK *NOMBRE Y APELLIDOS*	OPOSIZIOA *OPOSICIÓN*	LEHIAKETA *CONCURSO*	HE *PL*	GUZTIRA *TOTAL*
30562696	Atutxa Astorkia, Maria José	75,0000	48,4600		123,4600
16033179	Larrañaga Muñoz, Helena	76,2500	46,2750		122,5250
14952240	Alonso Celayeta, Fco. Javier	71,0000	44,5500		115,5500
14922304	García Vallejo, Pascual	66,1250	48,5000		114,6250
14911999	Ajuria Aguirregabiria, Begoña	62,1250	47,8500		109,9750
14889423	Simón Salazar, Federico	71,7500	43,2750		105,4000

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA
FAC. TÉCNICO ODONTÓLOGO

IREKIA - DESTINOEN ESLEIPENA
ADJUDICACIÓN DE DESTINOS - LIBRE

NAN *DNI*	Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	Zerbitzuetako Erakundea *Organización de Servicios*	Destinoa *Destino*
14952240	Alonso Celayeta, Fco. Javier	Arabako Eskualdea *Comarca Araba*	San Martin-Ariznabarra (Osasun Zentroa) *San Martín-Ariznabarra (Centro de Salud)*
14922304	García Vallejo, Pascual	Barrualdeko Eskualdea *Comarca Interior*	Basauri (Anbulatorioa) *Basauri (Anbulatorio)*
14911999	Ajuria Aguirregabiria, Begoña	Arabako Eskualdea *Comarca Araba*	LM Lakuabizkarra *AP Lakuabizkarra*
14889423	Simón Salazar, Federico	Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea *Comarca Gipuzkoa Este*	Irun (Osasun Zentroa) *CS Irun*